

Leire Bilbao / Maite Mutuberria. *Xomorropoemak. Pamiela*

Hontzak ilargiari

Ilargi-milargi,
Noiz egingo duzu argi?
Begi zurian nini beltza
zuri begira ni,
begi beltzean nini zuri
niri begira zu.
Ilargi-milargi,
noiz egingo argi?
Ilargi-milargi,
betazalak itxita lo dagi.

*Nahastu gabe errexitatu jende aurrean.

Ilargia ostu dute

Ilargia ostu dute, ilargia ostu dute!
oihukatu dute basoko animaliek.

Beleak izan dira, beleak izan dira
esan du gau hontzak.

Isilik eta beltz, isilik eta beltz
gehitu saguzaharrak.

Lakuan sartu dute, lakuan sartu dute
azaldu du hartzak.

Zertarako ote? Zertarako ote?
galdetu du basurdeak.

Ilargi bainua hartzeko
argitu du igelak.

*Errexitatu, antzeko poemak sortu, beste animalia berri batzuk erabilita.

Ilargi zati batekin amets egiten dute saguek

Ilbetea, ilbetea
saguek nahi dute
ilargia jatea.

Ilgora, ilgora
sagu koadrila doa
zeruko hormetan gora.

Ilbehera, ilbehera
oso-osorik jatea
posible ote da?

Ilberria, ilberria
biribil biribila
saguen gerria.

*Erritmodun poematxo hau mugimenduzko jolas batean integratzeko aukera dago.

Zerria eta zorria

Zorri bat zuen zerriak,
zerri bat zuen zorriak.
A zer zorria zerriak!
A zer zorria zerriak!
Zerriak zer?
Zorriak zor!
Zorri bat zuen zerriak,
zerri bat zorriak.
A zer zorria zorriak!
Eta zerriak?

*Ahokorapilo baten moduan erabili poematxo hau. Nahastu gabe esan, hitzak txarteltxotan idatzi eta nahastu, atzekoz aurrera irakurri...